

BURLATAKO MARTINGALA:

1988 urtetik hona egiten den Burlatako inauteriari ematen zaion izena.

Inauteri – astelehenean, ilunabarrean, Burlatako alde zaharreko giro lasaiak eztanda egiten du joasikeroen istilu eta iskanbilaz. Haiek, joasikeroak, panderetaz eta erratzaz armatuak dabiltza Lukas Aierbekoaren bila, ezkiltxo edo kanpaitxo txiki – txikiei eraginez, Lukas atxilotu eta herrian barna jendearen aurrean erakusteko asmoz. Honekin batera atxiloketa ospatu eta MARTINGALAREN dantza egingo dute panderetak joz eta herritar begiraleei erratzaz eraso eginez.

AIERBEKO LUKAS:

Martingalaren pertsonaiarik nagusiena. Tolosarra jaiotzez, Atarrabian bizi izan zen, eta Burlatan sorginkeri batzuk egin omen zituen. Izpiritu gaiztoak kanporatzeaz gain, sendagile ere ba omen zen.

MUXINARIAK:

Aierbeko Lukas laguntzen duten beltzez jantziriko emakumeak dira, negar batean pasatzen dute ibilaldi guzia.

ZORROTZAK:

Lukas de Aierbe preso daramaten epaileak dira, bigarren egunean hauek epaituko dute Lukas.

JOASIKEROAK:

Martingalan doan jende guziari deritzo koloredun jantzia, erratza tipia, pandereta, lastozko txanoa eta ezkiltto edo kanpanila batzuk daramazkitez. Ezkittoak eramateren arrazoia haxe da Burlatarron ezizena izan den “campaneros” horrekin usadioa lotzea.

AKERBURU!!! TXAKURBURU!!!:

Lukas de Aierberi ibilaldi guzian zehar oihukatzen zaizkion maldizio eta biraoak dira.

JOASIKEROZ NOLA JANTZI:

Jantzia honelakoa da: kolorez beteriko tunika bat (formak ez du axolirik). Tunikaren gainean edozein gauza eraman ahal da: zapiak, zintak, larruak... Edozein modutako lastozko kapela eta, bertan jarrita, oilo edo faisai lumak. Aurpegia estaliko da mozerro batez, kapeletik zintzilikaturiko zintez, margoez, eta abarrez. Esku batean pandereta eramango da edo antzekorik (lapiko baten estalkia, sartaia...etb) eta bestean makila mozturiko erratza

(eskobatxo batez edo adaska xorta batez ordezkatu ahal da). Pandereta erratzaz jotzen da erritmikoki, musikaren arabera, horregatik erratza erabilgarria izango da. Bestalde, KANPAITXOen erabilera nabarmendu nahi dugu (ez zintzarriak, ez eta kaskabiloak ere). Gerrian, bularrean, hanketan edo kapelean eramango dira... Honen arrazoia da Burlatarrok kanpanjoleak izengoitiaz ezagunak garela eta elementu jator eta atsegin hau sartzeko modua eta beronek iraun dezan laguntzeko modua dela.

AIERBEKO LUKAS HISTORIAREN LABURPENA:

Inauteri astelehen ilunabarrean gure herriko alde zaharrean Joasikeroen zalapartak somatzen dira. (Akerburu, txakurburu!!) Aierbeko Lukas arrapatu eta atxilotu dute. Martingala ospatzen ari dira, dantza eta pandero musika doa herritik barna. Ikusmina duen guziak ertzkadaren bat ere jasoko du. Astearte gauean, Zorrotzek, Aierbeko Lukas epaituko dute, Muxinarien negarrak entzun ahal izango ditugu Joasikeroen oihuekin batera:

- Aierbeko Lukas!
- Akerburu, txakurburu!!
- Aierbeko Lukas, sorgiña!
- Akerburu, txakurburu!!
- Zuregan dugu grina!
- Sutara, sutara!!

Segidan, Aierbeko Lukas urkatu eta erre egingen dute, muxinarien negarrak Joasikeroen dantzaren artean.